



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 17a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu genero-indarkeriaren aurkako berdintasun-politikak aldezteko manifestua eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko 2019ko urtarrilaren 15erako deitutako mobilizazioak eta elkarretaratzeak. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio txaleko horien mugimenduari. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzesten baititu eta erabat errefusatzeko baititu UPNren, EAJren eta Geroa Bairen aurka jaurtitako mehatxuak. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere errespetua erakusten baitio seme-alaben hezkuntza norberaren uste sendoen arabera erabakitzeko oinarritzko eskubideari. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Poloniako COP 24 konferentziaren balorazioari eta klima-aldaketaren arloan egiten ari den politikan duen eraginari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (13. or.).

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuan zergatik dagoen hainbat lanpostu huts bete gabe eta ea zer aurreikuspen dagoen horiek izendatzeari buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).

- Galdera, osasun mentalaren zerbitzua beste inora ez eramateko Tuterako Udaleko talde politikoei egindako eskariari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak zergatik egiten dion uko ordezkaririk sindikalekin biltzeari, ikastetxeetako irakasle ez diren langileekin lotutako gaiak jorrazteko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako iparraldeko Euskal Sagardoa jatorri deituran sartzeari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, bitarteko langileei gradua eta antzinatasuna onartzeko irizpideari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak 2019an jasoko dituzten ordainsariak (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2019an jasoko dituen ordainsariak (18. or.).
- Foru parlamentariak 2019an bidaia ofizialengatik jasoko dituzten ordainsariak (18. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2019an jasoko dituzten ordainsariak (19. or.).
- Talde parlamentarioek 2019an jasoko dituzten diru-laguntzak (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek 2019an jasoko dituzten ordainsariak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2019an jasoko dituzten ordainsariak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2019. urterako langileen plantilla organikoa (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2018ko abenduaren 31koa (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena,
eskuin muturreko taldeek edo
funtzionario publikoek eragindako
motibazio politikoko ekintzen
biktimen errekonozimenduari eta
erreparazioari buruzkoa**

ZIOEN AZALPENA

Azken urteetan, aurrerapen nabarmenak egin dira gure historiako zenbait gertakari tragikotako biktimei ordaina eta errekonozimendua ematearen arloan, motibazio politikoko indarkeria- eta terrorismo-ekintzei dagokienez.

Estatuko legegintzaren esparruan, azpimarratzekoa da abenduaren 26ko 52/2007 Legea, zeinaren bidez gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen baitira –"Memoria Historikoaren Legea" izenaz ezagutzen dena– eta haien aldeko neurriak ezartzen baitira. Lege horrekin, partzialki eta behar baino beranduago onbideratze bat eman zitzaion amaigabeko lazeriak eta umiliazioak pairatutako frankismoaren biktimenganako urtetako ahanztura instituzionalari. Zioen azalpean diogen bezala, "legeak oinarriak jartzen ditu botere publikoek aurrera eraman ditzaten gure historia ezagutzera eta memoria demokratikoa sustatzera zuzendutako politika publikoak". Azaroaren 3ko 1803/2008 Errege Dekretuak baldintzak eta prozedura arautzen ditu demokrazia aldeztu eta garatzeko jardueragatik hildakoentzat edo ezgaitzerainoko lesioak jasan zituenentzat 52/2007 Legean aitortutako kalte-ordainak ordaintzeko, eta ebaluazio batzorde bat sortzen da, zeinak ahalmena izanen baitu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak ofizios egiteko gertaera eragileak argitze aldera eta eskatutako errekonozimendurako eta erreparazioarako aukera eman dezakeen kausazko lotura zehazten laguntzeko alegatutako egitate edo datuak egiaztatze aldera.

Batzorde horri dagokio horri buruz egiten diren eskabideak izapidetzea, bai eta haiek aztertu, baloratu eta ebaztea ere.

Geroztik, Terrorismoaren Biktimak Aintzatetsi eta haiei Osoko Babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legeak babes sozial, ekonomiko eta politikoa eman zien erakunde terroristen indarkeriak eragindako biktimei; erakunde horien artean ETA, GAL eta BVE daude, besteak beste. Iraganean, biktima horiek ez dute jaso behar zuten errekonozimendu soziala, eta kasu honetan, haien memoriari duintasuna ematea egokitu zaigu. Foru lege honek aukera bat biltzen du Administrazioaren organo eskudunaren aurrean –Zuzenbidean onartzekoa den edozein frogabaliabide erabiliz– honako hauek egiaztatzeko: biktimaren edo eskubide-dunaren izaera, pairatutako kalteen nolakotasuna, egintza zein egitate eragileen izatea eta legez eskatutako gainerako baldintzak.

Nafarroan ere, motibazio politikoko indarkeriak eragindako kalteari ahal den guztian erreparazioa emateko ahalegin normatibo bat egin da, bi lege garrantzitsu onestearen bitartez.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak antolatu eta artikulatu zuen Nafarroako administrazioek nola garatu behar duten terrorismoaren biktimekiko tratamendua, horretarako mekanismo ekonomiko eta sozial batzuk ezartzearen bitartez, hartara, biktima horiek dauzkaten eskubideak babestuz. Foru lege horren 5. artikulua ezarri zuen ezen, legean xedatutakora biltzeko baldintza dela eragindako kalteak ekintza terrorista baten ondorio izatea. Baldintza hori epai batek edo estatuko segurtasun indar edo kidegoek ezarri ahal dute, edo, bestela kalifikazio hori berariaz ezartzen duen administrazio eskudunaren ebazpen batek.

Bestetik, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoak, zuzendu egin zuen Nafarroan balio errepublikano eta demokratikoak aldezteagatik eraildako 3.400 pertsona baino gehiagoren urtetako ahanztura ofizial barkaezina, eta aitzindaria izan zen Espainiako Estatuan.

Honetara ezker, interesgarria da ikustea nazioartean egin diren zenbait xedapen, Nazio Batuen esparru aldeaniztunean lortutako itun eta akordio handietatik hasita. Hasteko, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta haren geroko garapenak (Eskubideen Itunak, esate baterako) goraiatu nahi ditugu, ekimen honen sustraietan dagoen Nazioarteko Zuzenbide Publi-

koaren iturria baitira. Ezin dugu aurrera egin biktimen errekonozimenduan eta, horrenbestez, demokrazian sakontzen, planeta osoko pertsona guztien giza eskubideen oinarriak jartzen dituen lehenengo itun kolektibo hori goraiatu gabe.

Bestalde, oso berriki sortu den akordio bat ere aipatu nahi dugu, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agenda deitutakoa, orain dela hiru urte eskas, 2015eko irailean, Nazio Batuen esparruan sinatutakoa. Eta, zehazki, honako honen lorpena: “16. Helburua: Bakea, Justizia eta Erakunde Indartsuak”, zeinaren helburua baita gizarte zuzen, baketsu eta inklusiboak sustatzea. Gure ustez, helburu hori ezin izango da lortu biktimak direla-eta beharrezkoa den memoria-, errekonozimendu- eta erreparazio-ariketa egiten ez bada gatazka egoerak gertatu diren tokietan.

Halaber, Europako Kontseiluaren 1983ko azaroaren 24ko 116. Hitzarmena aipatu beharra dago, Indarkeria-delituen biktimei kalte-ordaina emateari buruzkoa, zeina 2001eko urriaren 31n berretsi baitzuen Espainiak. Hitzarmen horretan jasotzen da ezen “...kalte-ordain hori eman egingen dela baita egilea jazartzerik eta zigortzerik ez dagoenean ere”. Europar Batasunaren baitan, nabarmentzekoa da, halaber, Kontseiluaren apirilaren 29ko 2004/80/EE Zuzentaraua, zeinak estatu kideei ezartzen baitie kalte-ordainen araubide bat eduki behar dutela indarkeria-delituen biktimantz, agintari publiko edo erakunde eskudunak izendatu eta kasuko prozedura administratiiboak diseinatuko dituen.

Halaber, NBEk gomendio-tresna batzuk garatu ditu, estatuen jarduketarako orientabide moduan. Adibidez, haren Giza Eskubideen Kontseiluak, 2008ko irailaren 24an, 9/11 Ebazpena onetsi zuen, Egitarako Eskubideari buruzkoa, zeinean aitortzen baitu zeinen garrantzitsua den egitarako eskubidea errespetatu eta bermatzea giza eskubideak sustatzen eta babesten laguntzeko. Harekin, satisfazioz hartzen da zenbait estatutan mekanismo ez-judizialak sortzea, nola baitira egitarako eta adiskidetzarako batzordeak, sistema judizialaren osagarri direnak, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak ikertzeko; halaber, beste estatu batzuei adore ematen die antzeko mekanismoak sor ditzaten.

Hori baino lehenago, 2005eko abenduaren 16ko 60/147 Ebazpenaren bidez, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak aurkeztu eta erreparazioak lortzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak” onetsi zituen. Agiri horrek, izan ere,

bide administratibo publikoen mekanismoa aurreikusten du pairatutako kalteengatik lehengorazterako, berrezarpenerako, errehabilitaziorako eta satisfaziorako. Izan ere, motibazio politikoko indarkeria- eta terrorismo-delituen biktimei ahal den guztian errekonozimendua eta erreparazioa emateko diseinatu eta ezarritako nazioarteko, estatuko eta autonomiako eta foru erkidegoaren arloko arauen multzo horren esparruan, beharrezkotzat jotzen da orain Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege hau onestea, haren bidez babesa emateko giza eskubideen urraketen biktimen multzo bati, aurretik zegoen legerian tokirik ez zuenari. Horrela, arau honen bidez, prozedura administratibo bat ezartzen da bere aplikazio-eremuan mugatutako biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako neurri administratiboak hartze aldera. Horri dagokionez, garrantzitsua da aipatzea ezen foru lege honek ez duela, inolaz ere, zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen duela abstentzioaren, konkurrentziaren eta pronuntziamentu judizialekiko loturaren betebeharra.

Foru lege honetan egituratzen den egiarako eskubidea oinarrituta dago espediente administratiboak ebazteko lagungarri gertatzen diren eta motibazio politikoko ekintzen ondoriozko giza eskubideen urraketen biktimenzako errekonozimendua eta erreparazioa errazten duten egitateak ezagutu, dokumentatu eta zehaztean.

Azaldutako guztian oinarrituta, foru lege honek zuzendu eta ordeztu egiten du Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea, zeina indarririk gabe geratuko baita arau honek indarra hartzen duenean.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen helburua da eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeriazko jardunak eragindako motibazio politikoko biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako eskubidea egituratzea, baliabideak eta mekanismoak arautuz biktima horiek biktima gisa eta, beraz, dagozkien errekonozimendurako eta erreparazio integralerako eskubideen onuradun gisa, hartuak izateko.

2. Foru lege hau kokatuta dago motibazio politikoko indarkeriaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko diseinatu eta ezarritako nazioarteko, estatuko eta autonomiako eta foru erkidegoaren arloko arauen multzoaren esparruan. Xede horrekin, prozedura administratibo bat ezartzen da, foru legearen aplikazio-esparru subjektiboan mugatutako pertsonen babesa emanen dieten neurri administratiboak ezartzeko.

2. artikulua. Eremu subjektiboa

Foru lege honen esparru subjektiboa osatzen dute, motibazio politikoko kausa bat tarteko, eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeria-ekintza pairatu dutenek, eta bizitzan edo integritate fisiko, psikiko, moral, sexual edo materialean kalte bat eragin dien giza eskubideen urraketa pairatu dutenek, bai eta, kasua bada, haien kausadunek ere.

3. artikulua. Indarraldia.

Foru lege hau zuzenduta dago berak zehaztutako motibazio politikoko biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematera, baldin eta horien kausa izan badira edo izan ahal badira 1950eko urtarrilaren 1etik aurrera gertatutako ekintzak.

4. artikulua. Lurralde-eremua.

Foru lege hau aplikatuko zaie, foru legearen beraren eremu subjektiboaren barruan, Nafarroan kalteak izan dituzten pertsona fisikoei edota, izatera politikoa nafarra izanda, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldetik kanpo, kalteak izan dituzten pertsona fisikoei, baldin eta Estatuko edo beste autonomia erkidego bateko erakundeek kalte berengatik ez badiete ordainik eman.

5. artikulua. Jarduteko printzipioak.

1. Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, halako moduz non erakunde eta entitate publikoek, behar den garaian eta moduan, eskatzen zaizkien datu guztiak emanen baitituzte, eta egitateak zehazteko eta espedienteak ebazteko behar den lankidetzaren erraztuko baitute, hala agintariena nola beren zerbitzuko teknikariena.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde eta entitate publiko guztiek behar diren neurriak hartu behar dituzte honako xede hauetarako:

a) Ahal den guztian erraztea eta aldezte giza eskubideen urraketei buruzko azterketa eta dokumentazioa, bai eta horri buruz aurkeztutako eskubideak ere, foru lege honi bidea eman behar dioten bidezko ebazpen administratiboak oinarritzeko egia material bat zorrotasunez finkatu ahal dadin.

b) Motibazio politikoko biktimei erreparazio eta errehabilitazioa ematea, haiek ikusgarri egitea erraztuz, betiere zor zaizkien duintasuna eta borondatea ahal den guztian errespetatuta.

c) Nafarroako gizartearen sustatzea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako balioak, eta bakearen aldeko kultura bat sustatzea, giza eskubideen urraketen larritasunaren ezagutza eta gogoeta lagunduz, foru lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketen biktimekiko errekonozimendu instituzionalaren eta sozialaren bitartez.

2. Azkartasunaren printzipioa, eskubideen errekonozimendua eta haien erreparazioa behar gabe luzatzen edo zailtzen dituzten izapide formalak saihestuz. Administrazioak ezin izanen dio interesdunari dokumentazioa eskatu begi-bistako gertakariak edo gorabeherak frogatzeko, jardunean ari den administrazioaren artxiboetan edo aurrekarietan baldin badaude.

3. Diskriminazio-ezaren eta biktimen aldeko tratua printzipioa, kontuan hartuz haiek egon daitezkeen zaurgarritasuneko eta desberdintasuneko egoera berezia, behar diren neurriak hartuz prozedurak ez dezan sor prozesu traumatiko gehiagorik.

4. Gizarteak parte hartzearen printzipioa, eta herritarrek egia materiala ezagutzeko duten eskubidearen bermea, botere publikoen eta giza eskubideen, memoriaren sustapenaren edo bizikidetzaren demokratikoaren arloetako eskumenak dituzten Nafarroako Gobernu organo eta erakundeen arteko lankidetzaren bitartez, foru lege honek langai dituen giza eskubideen urraketei buruzko egia historikoa ezagutzen laguntzeko.

5. Hirugarrenen eskubideen bermearen printzipioa. Foru lege honen babesean izapidetutako espediente administratiboek ez dute inolaz ere ekarriko hirugarren pertsonen berme juridiko eta konstituzionalen aurkako urraketarik edo erasanik.

6. Prozedura administratiboa prozedura penaren subsidiarioa izatearen printzipioa. Foru lege honetan ezarritako prozedura administratiboak ez du zigor-xederik, eta berme osoz errespetatzen ditu abstentzioaren, konkurrentziaren eta pronuntziamentu judizialekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.

II. KAPITULUA

Egia, errekonozimendua eta erreparazioa

6. artikulua. Egiarako eskubidea

Nafarroako botere publikoek, foru lege honen aplikazio eremuan, memoriaren sustapenaren edo

bizikidetzaren demokratikoaren arloetako eskumenak dituzten Nafarroako Gobernu organo eta erakundeekin lankidetzan jardunen dute, nor bere eskumenean esparruan, foru lege honek langai dituen giza eskubideen urraketei buruzko egia ezagutzen laguntzeko.

7. artikulua. Errekonozimendurako eskubidea

1. Foru lege honen ondoretarako, motibazio politikoko indarkeriako testuinguru batean gertatutako giza eskubideen urraketen biktima deklaratzeko berekin ekarriko du, betiere, biktimen izaerari buruzko errekonozimendu publikorako eskubidea. Errekonozimendu publiko horrek bateagarria izan behar du biktimak bere intimitatea gordetzeko daukan eskubidearekin, berariaz hala eskatu duenean.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, biktimekiko errespeturik handienarekin eta ekitaldi, sinbolo edo antzeko elementuen bitartez, neurri aktiboak bultzatuko dituzte foru lege honetan aurreikusitako giza eskubideen urraketen biktimen oroimena eta errekonozimendua bermatzeko.

8. artikulua. Erreparaziorako eskubidea.

Foru lege honen ondoretarako, eta haren aplikazio-eremuan, erreparaziorako eskubideak kalteordain ekonomikoa bilduko du, bai eta, kasu bada, gertatutako giza eskubideen urraketen ondorioz pairatutako kalteak gainditu edo arintzeko osasun laguntza ere.

III. KAPITULUA

Prozedura

9. artikulua. Prozedura abiaraztea.

1. Eskubideak lege honen eremu subjektiboan aipatzen diren pertsonak sustatu eta aurkeztu ahal dituzte. Legitimazio aktiboa izanen dute, halaber, aipatutako eremuan jasota egon ez arren, foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren egitateen ezagutza zuzen eta zorrotza izan dutenek.

2. Foru lege honen arabera motibazio politikoko biktimaren izaera deklaratzeko eskubideak arloan eskuduna den Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuari zuzenduko zaizkio – gaur egun Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiari –, eta horrek organo administratibo eskudunari –foru lege honen arabera, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeari– helaraziko dizkio, azter ditzan.

3. Eskubidean gertakarien deskribapen ahalik eta zehatzena jaso behar da, eta, harekin bate-

ra, egokitzen jotzen diren dokumentu edo txosten guztiak aurkeztu ahalko dira; hala ere, hori ez da eragozpena izanen Batzordeak haiek dokumentatu eta egiaztatzen egin ditzakeen jarduketa eta kudeaketetarako.

10. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

1. Eskabidea jasota, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak hilabeteko epean ebatzi beharko du hura izapidetzeko onartzen duen ala ez.

2. Behin eskabidea izapidetzeko onartuta, Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko eta egokitzen jotzen duen guztietan, honako jarduketa hauetakoren bat egin ahalko du:

a) Eskatzaileari entzun, aurkeztu dituen dokumentu eta frogei buruzko informazioa osatzeko. Ondore horietarako, eskatzaileari hitzordua emanen dio Batzordearen egoitzan, edo, bestela, harekin adostutako tokian, elkarrizketa bat egiteko, betiere geografikoki haren bizilekutik hurbil egotearen printzipioari jarraituz. Elkarrizketa horren akta eginen du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen idazkaritza teknikoak, eta deklarazioa ikus-entzunezko baliabideekin grabatu ahalko da, eskatzailea ados badago.

b) Nafarroako Gobernuaren menpeko departamentu eta erakundeetan egon daitezkeen aurrerari, datu eta txostenak eskuratzea, bai eta haiek jasota egon daitezkeen Foru Administrazioi beste erregistro publiko batzuetakoak ere.

c) Informazioa eskatzea beste entitate publiko eta entitate edo organo pribatu zein publikoei espedienteak izapidetzeko beharrezko izan daitezkeen datu edo txostenei buruz, betiere gardentasunari eta datuen babesari buruzko legeria indardunean finkatutako mugen barruan.

d) Txostena edo lekukotasuna eskatzea egitateen ezagutza zuzen edo zeharkakoarengatik, beren esperientziarengatik edo peritu teknikoak izateagatik aurkeztutako eskabideari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen pertsonari; haien deklarazioa, halaber, grabatu ahalko da.

e) Argudiatutako egitate, inguruabar eta ondorioak hobeki aztertu eta egiaztatzen eta aurkeztutako eskabidea hobeki ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egitea.

3. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen helburuak betetzearekin lotuta dauden entitate publiko eta pertsona pribatuak eskatzen zaien laguntza eman beharko dute, foru lege honen babesean izapidetutako espedienteen

esparruko egitateen azterketa errazte aldera. Horri dagokionez, behar diren denboran eta moduan eman beharko dituzte eskatzen zaizkien datu guztiak nahiz teknikarien laguntza, eta, deitzen bazaie, Batzordearen aurrean agertuko dira, informazio-eskakizunei zuzenean erantzuteko.

4. Batzordeak, bere eskumenen eremuan, egokitzen jotzen dituen harremanak eduki ahalko ditu edozein agintarirekin nahiz agintaritza-agenterekin; Batzordeak, halaber, informazioak trukatu ahalko ditu erakunde eta entitate publiko eta pribatuekin, bai eta haien laguntza jaso ere.

11. artikulua. Eskabideak ebaztea.

1. Dokumentazioa eta espedienteen jasotako gainerako frogabideak aztertuta, aurkeztutako eskabide bakoitzari buruzko txosten arrazoitu bat eginen du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak, eta bertan aztertuko du ea foru lege honen aplikazio-eremuan ezarritako baldintzak betetzen diren; biktimaren giza eskubideen urraketa eragin zuten eta frogatutaz jotzen dituen egitateen laburpen bat eginen du, zeinean jasoko baitu egitateen eta egiaztatutako kalteen arteko kausazko loturari buruzko balorazio bat, horretarako oinarri dituen frogabideak zehaztuz; eta, kasu bada, biktima deklarazioa proposatuko du foru lege honen ondoreetarako, bai eta egokitzen jotzen diren erreparazio-neurriak hartzea ere.

Eskabidea jaso eta urtebeteko epean egin beharko da aipatutako txostena, epe hori luzatzea justifikatzen duen inguruabar bereizirik ez badago.

2. Egindako txostena bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko eskumenak dituen arduradunari igorriko zaio, eta horrek, hiru hilabeteko epean, kasuko ebazpena emanen du, eskabidea baietsi edo ezetsiko duena.

3. Ebazpena hilabeteko epean komunikatuko zaio interesdunari, eta, kasu bada, bidezko diren errekurtsoak aurkezteko aukera adieraziko zaio.

4. Foru lege honetan aurreikusitako eskubideen urraketa pairatu dituen pertsonari biktimaren izaera aitortzea bidezkoa denean, ebazpenak zehaztuko du zein diren errekonozimendu horrek dakartzan eskubideak, kasuan-kasuan.

12. artikulua. Biktima deklarazioaren ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonak aitortuta edukiko dituzte, osasun laguntzaz gainera, kalte fisiko edo/eta psikologikoengatik eta kalte materialengatik kalte-ordain ekonomikoak.

2. Horretarako, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean eta lege hori garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

IV. KAPITULUA **Errekonozimendu eta** **Erreparaziorako Batzordea**

13. artikulua. Sorrera.

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea sortzen da, kide anitzeko organo independente gisa. Honako eginkizun hauek izanen ditu: aurkeztutako eskabideak baloratu eta, foru lege honen babesean, eskabideak onar daitezen edo bazter daitezen proposatzea; eta, bidezkoa denean, biktimaren izaeraren deklarazioa egin eta, kasua bada, erreparazio-neurriak proposatzea.

2. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordea organikoki Nafarroako Gobernuako bakearen, bizikidetasunaren eta giza eskubideen arloko departamentu eskudunari atxikiko zaio, eta foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzera, autonomiaz eta independentzia osoz jardunen du, eta emandako eginkizunak objektibotasunez, profesionaltasunez, osotasunez, inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta ordenamendu juridikoa errespetatuz bete beharko ditu.

14. artikulua. Osaera.

1. Batzordeak bederatzi kide izanen ditu; horietatik, sortzetiko kideak izanen dira bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko burua eta Nafarroako Memoriaren Institutuko burua, edo, bestela, antzeko organismoetako buruak.

2. Gainerako kideak Parlamentuak hautatuko ditu beren eskubide zibil eta politikoen gaineko erabilpen erabatekoa duten eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, zintotasun-, kualifikazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten herritar adindunen artetik.

3. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hautatuko ditu sei urteko aldi baterako.

4. Kargurako hautagaiak talde parlamentarioek edo/eta giza eskubideen eta memoriaren arloko jarduera Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposatuko dizkiote Nafarroako Parlamentuari.

15. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak hautatu diren pertsonen izenak jakinaraziko dizkio

Foru Komunitateko Lehendakaritzari, izenda ditzan.

2. Izendatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan jabetuko dira beren karguaz batzordeko kideak.

16. artikulua. Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen eraketa baliozkoa izan dadin, bilkura eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dago-kionez, beharrezkoa izanen da haren kideetatik bost bertaratuta egotea, gutxienez ere. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

2. Kontseiluko lehendakaritza eta idazkaritza kideen artean hautatuko dira, gehiengoaz, Batzordearen eratzeko-bilkuran.

3. Batzordeko kideek eskatu ahalko dute aktan jaso dadila hartutako erabaki baten aurka daudela, edo zein izan den beren botoa. Halaber, kideen bat gehiengoak hartutako erabakiarekin ados ez dagoenean, boto partikular bat aurkeztu ahalko du idatziz, erabakia hartu eta bi eguneko epean, eta hura onetsitako testuari gehituko zaio.

4. Batzordeari dagokio funtzionamendurako barne arauak onestea.

5. Batzordeko kideek eskubidea izanen dute Kontseiluaren lan bilkuretara joategatik eta txostenak egiten parte hartzeagatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sariak jasotzeko. Egun bakoitzeko ez da sortuko mantenu-sari bat baino gehiagorako eskubiderik.

6. Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kideek, horri buruz aplikatzekoa den araudiari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahalko dute bilkuretan. Halaber, bermatuko da bilkuretarako deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta Errekonozimendu eta Balorazio Batzorde honek egiten dituen idazkietan Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla.

17. artikulua. Baliabideak.

1. Esleitzen zaizkion eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak eduki beharko ditu Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak. Nafarroako Gobernuak bermatuko ditu baliabide horiek.

2. Batzordeak zerbitzuak eskatu ahalko dizkie beren eskumenen eremuko gaitan espezialista eta peritu edo aditu direnei. Zerbitzu espezializatu horiek Batzordeko gainontzeko langileek bete beharreko zintzotasun, neutraltasun, erantzukizun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun araubide berari lotuta egonen dira.

18. artikulua. Jardueraren oroitidazkia.

Urtero, Batzordeak oroitidazki bat prestatu eta argitaratuko du, eta hartan jasotako eskubideen, egindako lanen, espedienteen egoeraren eta egindako ebazpen-proposamenen berri emanen du. Oroitidazki hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen gaian eskuduna den batzordean.

V. KAPITULUA

Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea

19. artikulua. Txostenak eta konklusioak.

Batzordeak bere jarduketari buruzko urteko oroitidazkiak igorriko dizkio Memoriaren Institutuari edo bakearen, memoriaren eta bizikidetzaren arloan eskuduna den antzeko erakundeari. Oroitidazki horietan eta foru lege honi dagokion gaiari buruz garatutako gai osagarrietan oinarrituta, aipatutako organismoak, Batzordea eratu eta gehienez ere lau urteko epean, bi txosten orokor eginen ditu. Lehenbizikoak 1950eko urtarrilaren 2tik 1978ko abenduaren 28ra bitarteko epea hartuko du, eta bigarrenak, berriz, azken egun horretatik gaur egundainokoa. Txosten horiek Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dira.

20. artikulua. Bakerako eta bizikidetasunerako hezkuntza

Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan eta hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak garatutako programen esparruan, foru lege honetan jasotako helburu eta printzipioak jasoko dira.

21. artikulua. Sentsibilizazioa.

Nafarroako Gobernuak ziklo, ikastaro, mintegi edo biltzarrak jarriko ditu abian gizarteari, oro har, informazioa eman eta gogoeta egite aldera motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan gerta-

tzen diren giza eskubideen urraketan larritasunari eta garrantziari buruz.

Lehen xedapen gehigarria. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

1. Nafarroako Gobernuak biktimen Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordearen funtzionamendua finantzatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan urtero berariazko partida bat ezarriz.

2. Nafarroako Gobernuak bermatuko du Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeak bere funtzionamendurako behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea.

Bigarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu foru lege honetan xedatua garatu eta aplikatzeko eta, bereziki, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritako kalte-ordain eta laguntzak haren helburuetara egokitzeko, behar diren modulazioak ezarrita.

2. Nafarroako Gobernuak bere eskumenen esparruan ezarriko du behar adina kreditu gaitzea foru lege honetan ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, behar diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu arau honetan jasotako aurreikuspenak garatzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauen indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten maila berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta bereziki Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu genero-indarkeriaren aurkako berdintasun-politikak aldezteko manifestua eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko 2019ko urtarrilaren 15erako deitutako mobilizazioak eta elkarretaratzeak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu genero-indarkeriaren aurkako berdintasun-politikeak aldezteko manifestua eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko 2019ko urtarrilaren 15erako deitutako mobilizazioak eta elkarretaratzeak; izan ere, eskuinak era arriskutsuan ari dira politika horiek auzitan jartzen eta Andaluziako gobernua lortzeko negoziatziorako objektu gisa baliatzen.

2. Nafarroako Parlamentuak indarkeria horren adierazpide guztiak arbuiatzen ditu, bere konpro-

misoa helarazten die biktimei, eta erasotzaileekiko tolerantziarik batere ez duela izanen adierazten du.

3. Nafarroako Parlamentuak emakumeen berdintasunaren eta segurtasunaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du emakumeen eskubideak, askatasuna eta segurtasuna auzitan jartzea dakarren akordio politiko inplizitu edo esplizitu oro”.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio txaleko horien mugimenduari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die txaleko horien mugimenduari eta mila pertsona pobreziara ezinbestez daramatzaten politika neoliberalen aurkako errebindikazio legitimoa”.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzesten baititu eta erabat errefusatzeko baititu UPNren, EAJren eta Geroa Bairen aurka jaurtitako mehatxuak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Zeharo gaitzesten ditu eta erabat errefusatzeko baititu UPNren, EAJren eta Geroa Bairen aurka jaurtitako mehatxuak, eta mehatxuak jaurtitzeko jarraitzea onartezina dela uste du, erakunde politikoaren aurka gizarte demokratiko batean zilegi den kritikaren mugez harago doazen erasoak direlako.

2. Bere elkartasuna helarazi nahi die gertakari horiek ukitutako bizilagunei, bai eta kaltetutako merkatariari ere.

3. Bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustua berresten du, eta indarkeria eta hertsapena inolako gatazkaren konponbidea sekula ere ez direla izanen uste du”.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere errespetua erakusten baitio seme-alaben hezkuntza norberaren uste sendoen arabera erabakitzeko oinarrizko eskubideari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere errespetua erakusten dio seme-alaben hezkuntza norberaren uste sendoen arabera erabakitzeko oinarrizko eskubideari.

2. Nafarroako Parlamentuak dio ezin agintari edo botere publikok ezin diela gurasoei oinarrizko eskubide hori, Konstituzioan jasota dagoena, ebatzi”.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Poloniako COP 24 konferentziaren balorazioari eta klima-aldaketaren arloan egiten ari den politikan duen eraginari buruzkoa.**DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Poloniako COP 24 konferentziaren balorazioari eta klima-aldaketaren arloan egiten ari den politikan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

2018ko abenduan klima aldaketaz jarduteko COP 24 konferentzia egin zen Katowicen (Polonia), mundu osoko 200 estatu inguru bertan elkartuta. Nafarroako Gobernua ere bertan izan zen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilari Isabel Elizalde eta Departamentuko Ingurumeneko zuzendari nagusi Eva Garciak ordezkaturik, eta goi-bileraren horretan Nafarroako Gobernua klima aldaketaren ondorioak murrizteko eta egoerara egokitzeko egiten ari den lana aurkeztu zuten. KLINA 2017-2030 klima aldaketari aurre egiteko bide-orriaren berri eman zuten, hain zuzen ere.

Goi-bileraren helburua Parisen 2015ean egindako goi-bilerari jarraipena ematea eta han hartutako konpromisoak garatzen jarraitzea zen, eta bilkura bukatu ondoren hainbat eragilek egindako balorazioetan argiak eta itzalak jaso dira.

Zel in da Nafarroako Gobernuak Poloniako COP 24 konferentziaz eta horren emaitzaz egiten duen balorazioa eta, zehazkiago, nola eta zertan eraginen dio Nafarroako Gobernua klima-aldaketaren inguruan garatzen ari den politikari?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuan zergatik dagoen hainbat lanpostu huts bete gabe eta ea zer aurreikuspen dagoen horiek izendatzeari buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuan zergatik dagoen hainbat lanpostu huts bete gabe eta ea zer aurreikuspen dagoen horiek izendatzeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Bete gabe daude honako lanpostu hauek: Idazkaritza Tekniko Nagusia, Deialdien Ataleko Burutza, Azterlan Ekonomikoen Ataleko Burutza, 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko Burutza, Aholkularitza Juridikoaren Bulegoa, Prestakuntza Etengabeko Bulegoa eta Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulegoa. Zergatik? Noiz izendatuko dituzu?

Corellan, 2019ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, osasun mentalaren zerbitzua beste inora ez eramateko Tuterako Udaleko talde politikoek egindako eskariari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, osasun mentalaren zerbitzua beste inora ez eramateko Tuterako Udaleko talde politikoek egindako eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariatzako, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Osasun mentalaren zerbitzua beste inora ez eramateko eskatu dute Tuterako Udaleko talde politikoek. Gauzak horrela, zein da Osasun Departamentuaren erantzun zehatza osasun mentalaren zerbitzua Tuterako Reina Sofia ospitalera eramateari dagokionez?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak zergatik egiten dion uko ordezkari sindikalekin biltzeari, ikastetxeetako irakasle ez diren langileekin lotutako gaiak jorratzeko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak zergatik egiten dion uko ordezkari sindikalekin biltzeari, ikastetxeetako irakasle ez diren langileekin lotutako gaiak jorratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dugu:

1.- Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak uko egiten dio ikastetxeetako irakasle ez diren langileekin lotutako gaiak jorratzeko ordezkari sindikalekin biltzeari. Zergatik?

2.- Kontseilariak jokabide hori babesten al du?

3.- Zer neurri hartuko du egoera hori zuzentzeko?

Corellan, 2019ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako iparraldea Euskal Sagardoa jatorri deituran sartzeari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako iparraldea Euskal Sagardoa jatorri deituran sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2017. urteko hasieran Euskal Sagardoa Jatorri Deitura sortu zen EAEko administrazioaren eta bertako sagardogileen elkarlanaren ondorioz.

Nafarroako sagardogileen elkarteak eta sagardotarako sagarren ekoizleek, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Departamentuarekin bilera batean gai horri buruz hitz egin ondoren, eta 2017ko urtarrilaren 25ean Jesus Ángel García Jimenezek sinatutako instantzia orokor baten bidez, Nafarroako iparraldea ere jatorri deitura

horretan sartzeko eskaria egin zezan eskatu zioten Landa Garapeneko kontseilariari.

Eskaera egin zenetik bi urteko denbora tarte igaro ondoren:

Egin al dio Nafarroako Gobernuak eskari ofizialik Eusko Jaurlaritzari Nafarroako iparraldea ere jatorri deitura horretan sar dadin?

Eskari hori egin baldin bada, zein izan da erantzun ofiziala eta zein dira egindako urratsak?

Eskaririk egin ez baldin bada, zein izan da horretarako arrazoia eta, bestalde, eman al zaio horren berri ekoizleei?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, bitarteko langileei gradua eta antzinasuna onartzeko irizpideari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, bitarteko langileei gradua eta antzinasuna onartzeko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide darabil bitarteko langileei gradua eta antzinasuna onartzeko irizpideari buruz?

Horri buruzko lege-aldaketarik igorriko al du Nafarroako Parlamentura?

Corellan, 2019ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak 2019an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2019ko urtarrilaren 9an txosten bat egin du foru parlamentarien 2019ko ekitaldirako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakolari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea foru parlamentarien ordainsariak gehikuntza izanen dutela, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2,25koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide

diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 59.009,22 eurokoa izanen dela 2019. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 52.451,84 eurokoa izanen dela 2019. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 44.257,08 eurokoa izanen dela 2019. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 39.338,74 eurokoa izanen dela 2019. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2019an jasoko dituen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, besteak beste erabaki hau hartu zuen, Eledunen Batzarrari entzun ondoren:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2019ko urtarrilaren 9an txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2019ko ekitaldirako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraituz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariek ez dutela inolako igoerarik izanen 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

2. Onestea ezen lehendakariaren 2019. urteko ordainsari gordina 57.253,14 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentariak bidaia ofizialengatik 2019an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2019ko urtarrilaren 9an, txosten bat aurkeztu du, zeinaren bidez proposatzen baitu bidaia ofizialengatik ordainsarien indarreko araubidea mantentzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Onestea, 2019rako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatik eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatik ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora egindako bidaia ofizialengatik ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 50 €/egun.

– Atzerrira egindako bidaia ofizialengatik ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 80 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatik ordainsariak: 0,31 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira kargarik gabeko zenbatekoen mugak 2019rako:

– Mantenuko gastuengatik: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 53,34 euro egun bakoitzeko; eta atzerrira egindako bidaia direnean, 91,35 euro egun bakoitzeko.

– Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari eta aparkaleku gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2019an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2019ko urtarrilaren 9koa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 2,25ekoa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2019rako ezarria.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2019an jasoko dituzten

ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 139,93 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 165,46 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Talde parlamentarioek 2019an jasoko dituzten diru-laguntzak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2019ko urtarrilaren 9an, talde parlamentarioentzako diru-laguntzei buruzko txosten bat aurkeztu du, zeinak 2019ko ekitaldirako Nafarroako Parlamentuko aurrekontuei buruzko proiektuan onetsi baitziren.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten diru-laguntzek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2019an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2019ko urtarrilaren 9an, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2019ko ordainsariei buruzko txosten bat egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsariak:

- Lehendakaritzako Kabineteko burua: 53.737,32 euro.
- Lehendakaritzako idazkaria: 40.422,76 euro.
- Mahaiko kideen idazkaria: 32.707,22 euro.
- Talde parlamentarioen laguntzaileak: 32.707,22 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek 2019an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2019ko urtarrilaren 9an, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariek ehuneko 2,25eko gehikuntza orokorra izanen dutela, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarritako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2019. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	26.831,70 euro
B	22.572,62 euro
C	18.724,86 euro
D	16.307,90 euro
E	14.344,68 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2019. urterako langileen plantilla organikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak eginiko Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoaren proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikulua-

kin bat eta Langileen Batzordeak txostena egin ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen honako plantilla organikoa onestea 2019. urterako:

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendap en librea	Esklusi- bitatea	Bateraezin tasuna	Lanpostu- osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezikoa
Idazkaritza Nagusia									
Legelari nagusia (1)	1.	A	X	55.		98,30		35	
Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza									
Administrari burua (2)	—	C	X			72,68	12		
Administrariak	2	C				62,68	12		
Zerbitzu Juridikoak									
Legelariak	5	A		55		81,30			
Zerbitzu Orokorrak									
Zerbitzu Orokorretako burua (3)	—	B	X	55		59,40			
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49,40			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	51,30			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49,40			
Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	1	C				62,68	12		
Administrariak (4)	5	C				62,68	12		
Mantenimenduko ofizial teknikaria	1	C				56,50	12		10
Gelazain nagusia (5)	—	D				63,00	15		
Gelazainak (6)	11	D				53,00	15		
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		81,30			
Komunikazio teknikaria	1	A			35	51,30			
Itzultzaileak (7)	5	A		55		35,30			
Protokoloko teknikaria (8)	1	B			35	49,40			
Administraria (4)	2	C				62,68	12		
Transkriptoreak (4)	6	C				62,68	12		
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		61,30			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	49,40			
Administraria (4)	2	C				62,68	12		
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA									
Kontu-hartzailetzako burua	1	B		55		59,40		15	
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49,40			
Administrariak	2	C				62,68	12		

	Kop.	Maila	Izendap en librea	Esklusi- bitatea	Bateraezin tasuna	Lanpostu- osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezikoa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA									
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	49,40		20	
Administrataria	2	C				62,68	12		

(1) Parlamentuko Mahaiaik izendaturikoa, Lehendakaritzak proposaturik, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien e do Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, lanpostu hau hutsik dago eta Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du jardunean.

(2) Izendapen librea, Parlamentuko administrariaren kidegoko funtzionarioen artean.

(3) Izendapen librea, Parlamentuko administrazio-kudeaketako maila ertaineko teknikarien artean.

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(5) Merezimendu-lehiaketaren bidez izendatua, gelazainen kidegotik.

(6) Mantentze-lanak egiteko atxikitako lanpostua.

(7) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.

(8) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.

b) Behin-behineko langileak

Lehendakariaren kabinetea eta talde parlamentarioen laguntzaileak

Kop	Lanpostua	Izendapen askea
1	Lehendakaritzako Kabineteko burua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
13	Talde parlamentarioen laguntzaileak: 3 UPN; 2 PSN; 2 Podemos -Ahal Dugu -Orain Bai; 2 Geroa Bai; 2 Bildu; 1 PPN eta 1 I-E	BAI

Nafarroako Parlamentuak laguntzaile bat ordaintzen dio talde parlamentario bakoitzari, talde parlamentario bakoitzeko bost parlamentario bakoitzeko edo zatikiko.

Arartekoa

Kop	Lanpostua	Izendapen askea
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
3	Aholkulari teknikoa	C
1	Nafarroako Arartekoaren kabinetea	G

C: Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua - izendapen librea

G: Kabineteko behin-behineko - izendapen librea

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2018ko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2018ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

1. 2018ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea:

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
Lanpostu hutsa	A		Legelari nagusia (1)	
Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza				
LASECA ESCUER, JOSÉ RAMÓN	C	7	Administrari burua	Jardunean
MITXELENA ENBIL, IZASKUN AMAIA	C	6	Administraria	Jardunean
ZERBITZU JURIDIKOAK				
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
DOMENECH ALEGRE, SILVIA	A	4	Legelaria	Jardunean
PULIDO QUECEDO, MANUEL	A	7	Legelaria	Jardunean
ZERBITZU OROKORRAK				
Lanpostu hutsa	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	4	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	7	Informatikako goi mailako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	5	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
MARZAL PARRA, M ^a ASUNCIÓN	B	6	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Mantenimenduko ofizial teknikaria	
ALDATZ PAYAN, GORKA	C	6	Administraria (2)	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
Lanpostu hutsa	C		Administraria	
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	7	Administraria	Zerbitzu bereziak
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	7	Gelazain nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M ^a ÁNGELES	D	7	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M ^a ÁNGELES	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
FADRIQUE GARDE, ISABEL	D	7	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	6	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
MARTÍNEZ ORDUÑA, M ^a JESÚS	D	6	Gelazaina	Zerbitzu bereziak

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
MONEO MARTÍNEZ, M ^a INÉS	D	6	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARÍN, OLGA	D	7	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, ANA ISABEL	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, CARLOS JAVIER	A	7	Prentsako burua	Jardunean
Lanpostu hutsa	A		Komunikazio teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	5	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	5	Itzultzailea	Jardunean
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	4	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	5	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	5	Itzultzailea	Zerbitzu bereziak
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	5	Protokoloko teknikaria (3)	Jardunean
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, BELÉN	C	7	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria (2)	
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	7	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPIÓN, ANA ISABEL	C	7	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	7	Transkriptorea	Jardunean
SÁENZ GARCÍA, M ^a CARMEN	C	7	Transkriptorea	Jardunean
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	6	Transkriptorea (2)	Jardunean
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	4	Transkriptorea	Jardunean
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, LUIS JAVIER	A	7	Artxibo eta Liburutegiko burua	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	5	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
ALEGRÍA GOÑI, M ^a CARMEN	B	5	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	7	Administraria	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	7	Administraria (2)	Jardunean
KONTU-HARTZAILAZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA				
ZULET RECALDE, FERNANDO	B	7	Kontu-hartzailatzako burua	Jardunean
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	4	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
ILUNDÁIN ILUNDÁIN, BEATRIZ	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a VICENTA	C	7	Administraria	Jardunean
ECHVERRÍA UHALTE, CELINA	C	7	Administraria	Jardunean

NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA				
BALDUZ GIL, JORGE	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LAINIZ GIL, MAR	C	7	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	

(1) Parlamentuko Mahaiak izendaturikoa, Lehendakaritzak proposaturik, Parlamentuko legegarien, Kontuen Ganberako legegarien edo Nafarroako Gobernuako aholkulari juridikoen artetik.

(2) Euskara-titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(3) Ingeles-titulua nahitaezkoa duen lanpostua